EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD
2016 ABU. AGO. 04

| SARRERA | IRTEERA |
|---|---|
| Zk. | Zk. 281789 |

Zuzendari agurgarria

Dakizuenez, aurtengo apirilaren 14an sartu zen indarrean 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ustez, arau berri hau oso probetxugarria izango da Euskadin bizi garen pertsonentzat, prebentzioari eta osasunaren sustapenari dagokienean. Hori dela eta, zuen inplikazioa eskatzen dizuegu, arau berri hau zabaldu, abian jarri eta ezartzeko. Euskal gizartean hedatu eta partekatu nahi dugu ohitura osasungarrien alde egiten dugun apustua eta, zalantzarik gabe, lan horretan, kirol entitate eta federazioak eragile aktibo, positibo eta eredugarriak dira, gizarte osasuntsuagoa eta ongizate handiagoa posible egiteko, lege berriaren 22. artikuluak ezartzen duen moduan (bertan, kirolaren eremuko prebentzioa ezartzen baita). Hori guztia dela eta, 1/2016 legean, dagokizuen esparruan eragin berezia duten eduki nagusiak ezagutu arazi nahi dizkizuegu.

Kirol-lehiaketak egiten diren instalazioei dagokienez, garrantzitsua da honako hau gogoraraztea: debekatuta dago alkohola saltzea eta banatzea, baina soilik lehiaketa horiek dirauten bitartean. Ondorio horietarako, lehiaketatzat hartuko dira kirol-federakuntzak halakotzat jotzen dituenak, baita eskola- eta unibertsitate-kirolari loturikoak ere. Horrek guztiak, bestalde, ez du eragozten beste arau batzuk aplikatzea (legeak, erregelamendua, ordenantzak eta abar).

Argibide moduan: Dagokion erregelamendua garatu bitartean, denbora-tarte honetan ezarri behar da edari alkoholdunak saldu eta banatzeko debekua: instalazioko ateak irekitzen direnetik ixten direnera arte eta, gutxienik, lehiaketa hasi baino 15 minutu lehenagotik, hura bukatu eta 15 minutu pasa arte. Edozein kasutan, debeku hori instalazio horien kirol-esparru osagarrietan ere ezarri behar da: harmailak, aldagelak, komunak, lehen sorospenetarako guneak, biltegiak eta antzekoak.

Kirol-instalazioen barruan dauden bestelako eremuei dagokienez –ostalaritza-establezimenduak, esaterako–,

Estimado/a presidente/a

Como seguramente ya conocéis, el 14 de abril de este año entró en vigor la ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias. Desde el Departamento de Salud del Gobierno Vasco estamos convencidos de que esta norma reportará importantes beneficios en materia de prevención y promoción de la salud a las personas que vivimos en Euskadi. Queremos difundir y compartir con la sociedad vasca nuestra apuesta por los hábitos saludables y, en esta labor, las entidades y federaciones deportivas son, sin duda, un agente activo, positivo y fundamental en el camino hacia una sociedad más sana y con mayor bienestar, tal y como refleja el artículo 22 de la ley, referido a la prevención en el ámbito del deporte. Por este motivo, queremos daros a conocer los aspectos de la ley 1/2016 que tienen una especial incidencia en vuestro ámbito.

Con respecto a la prohibición de venta y suministro de bebidas alcohólicas en instalaciones donde se celebren competiciones deportivas, y sin perjuicio de otras normas de aplicación (leyes, reglamentos, ordenanzas, etc.), es importante señalar que la misma se refiere al periodo de tiempo en que se celebren competiciones deportivas. A este efecto, se entenderá por competiciones las que así se califiquen por la correspondiente federación deportiva, así como las de deporte escolar y universitario.

A modo de aclaración y orientación, en tanto en cuanto se proceda al desarrollo reglamentario correspondiente, os indicamos que dicha prohibición deberá observarse desde la apertura de las instalaciones hasta el cierre de las mismas y, como mínimo, 15 minutos antes del comienzo de la competición y 15 minutos después de su finalización. Además, se hará extensiva a los espacios complementarios de estas instalaciones, que sirven para dar apoyo a las actividades deportivas, como gradas, vestuarios, aseos, los de primeros auxilios, almacenes, y otros similares.

Respecto de aquellos espacios de instalaciones deportivas, tales como establecimientos de hostelería, que estén integrados en el espacio deportivo, procede

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 92 01– Fax 945 01 91 92 – E-mail: dirsalud-san@euskadi.eus

gogorarazten dizugu debekutik kanpo geratzen direla bereizita dauden espazio sektorizatuak, kirol-jardueraren erabiltzaileentzat eta publiko orokorrarentzat sarbide propioa eta independentea dutenak. Establezimendu horiek, gainera, ostalaritzako edo kirol-jardueraz bestelako jarduera ustiatzeko baimena edo lizentzia eduki beharko dute.

Tabakoaren kontsumoari dagokionez, 1/2016 legearen 40. artikuluak ezartzen du ezin dela erre kirol instalazioetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere. Aire zabaleko gune horietan, ostalaritzako espazioen ondoko gelak jarri ahal izango dira, behar bezala mugatu eta seinalatuko direnak.

Hemen duzue Legearen lotura:

(https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2016001527.

Arau hau eraginkortasunez betetzeko eta hedatzeko, kirol entitate eta federazioen konpromisoa ezinbestekoa da, kirolaren arloan osasun ohiturak sustatzeko, arrisku-jokabideak murrizteko eta adikzioen prebentzioan egiten duzuen lanarengatik. Hori dela eta, esker onak eman nahi dizkizut zure konpromiso eta lankidetzagatik.

Argibide gehiago behar badituzu, zure esanetara naukazu. Besterik gabe, har ezazu nire agurrik beroena.

Vitoria-Gasteiz, 2016eko abuztuaren 4ean

informar de que quedarán excluidos de la prohibición cuando estén sectorizados y formen una parte diferenciada con acceso propio, tanto para las personas usuarias de la actividad deportiva como para el público en general. Asimismo, deberán contar con la correspondiente autorización o licencia municipal de explotación de actividad de hostelería o de cualquier otra distinta de la actividad deportiva.

En cuanto al consumo de tabaco, el artículo 40 de la ley 1/2016 prohíbe fumar en instalaciones deportivas, incluidas las zonas anejas cerradas, semicerradas y al aire libre. En estas últimas zonas al aire libre, podrán habilitarse lugares anexos a los espacios de hostelería, que deberán estar claramente acotados y señalizados.

Os facilitamos el enlace al texto completo de la ley:

(https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2016001527.

El compromiso de las entidades y federaciones deportivas con el cumplimiento efectivo y la difusión de esta norma resulta indispensable, por su importancia para el fomento de hábitos saludables, la disminución de las conductas de riesgo y la prevención de las adicciones en el ámbiro deportivo. Por ello quiero expresaros mi consideración y agradecimiento por vuestra colaboración.

Aprovecho la ocasión para enviaros un cordial saludo, y ponerme a vuestra disposición para cualquier aclaración que podáis precisar.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de agosto de 2016

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

MIREN Dorronsoro Iraeta
Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria
Directora de Salud Pública y Adicciones